

## ERANSKINA

### AZPko kideentzako

### 2018ko HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA

### IVAPeko Berariazko ikastaroak

Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak, UPV/EHUko II. Plan Gidarian onartuta duen moduan, "hizkuntza prestakuntza" eskaintzea du bere helburu espezifikoaren artean.

IVAPek 2018 urterako Hizkuntza prestakuntzako ikastaroak antolatu ditu. Ikastaro horiek gainontzeko administrazioetara zabaldu ditu, eta Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak, Euskalduntze batzordearen oniritziarekin, eskaintza hori zabaltzea erabaki du.

IVAPek egindako eskaintza horretatik, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren Arloko Errektoreordetzak, bukaeran, taula batean dagoen ikastaroen eskaintza egiten die AZPko langileei:

#### Oharrak:

- Ikastaro bakoitzak bere **fitxa teknikoa** dauka IVAPeko webgunean, ikastaroaren berezitasunak eta bete beharreko baldintzak ikusteko.
- Ikastaro mota bi daude:
  - A** aurrez aurrekoak.
  - L** Lineakoak edo on-line.
- **Eskariak egiteko epea: ekainaren 22tik uztailaren 15era bitartean (biak barne)**, eta ez IVAPeko fitxa teknikoan agertzen dena. Kontuan izan Errektoreordetzak bere barne antolakuntza egin behar duela.
- Ikastaroen kostua Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren Arloko Errektoreordetzak hartuko du bere gain.

#### Onartua izateko baldintzak:

- Ezinbestekoa izango da **zerbitzuburu edo nagusiaren onespena**.
- Ikastaro bakoitzaren fitxa teknikoan, bete beharreko baldintzak agertzen dira; horiek bete egin behar ditu eskatzaileak ikastaroa eskatu ahal izateko.
- Langile bakoitzak ezin izango du **ikastaro bat baino gehiago** eskatu urtero (urte naturala). Hala ere, langileak ikastaro bat baino gehiago eskatuko balu, errektoreordetzak onartzekotan, eskari gutxien egondakoan onartuko lioke.
- Kontuan izanda IVAPek oso plaza gutxi eskaintzen dituela administrazio guztietarako, **erakunde bakoitzak gehienez 6 eskari egin ahal izango ditu ikastaro bakoitzeko**. Hala ere, IVAPek ezingo ditu jasotako guztiak onartu. Beraz, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren Arloko Errektoreordetzak **eskariak onartzeko irizpideak** honako hauek zango dira:

**1.-** Erregistro Orokorretik bidali beharko dira, eta han ezarritako data eta ordua errespetatuko dira. Beraz, lehenasuna lehenengo heltzen direnek izango dute.

**2.-** Ez dira onartuko egun eta ordu berean beste ikastaro batean daudenen eskariak. Alegia, 2018/2019 ikasturtean zehar IVAPeko liberazioren bat baldin badute (5 ordukoa edo 2 ordukoa), edota hobekuntza ikastaroren bat egiten baldin badaude.

- Ezin izango da ikastarorik errepikatu hurrengo deialdietan, halakorik balego.
- Eskarian datu guztiak ongi betetzea.
- Ez dira onartuko, aurreko urtean ikastaroren bat eskatu eta gero egin ez dutenek errektoreordetza honetan inolako abisurik eman gabe.

**Nola eman izena:**

Honekin batera zabaltzen den inprimakia betez eta Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren Arloko Errektoreordetzara bidaliz Erregistro Orokorretik.

**Izena emateko epea:**

2018ko **ekainaren 22tik uztailaren 15era**, biak barne. Ez da onartuko epez kanpoko eskaririk.

**Taldean antolakuntza:**

- Ikastaroak IVAPek ematen ditu. Beraz, fitxa teknikoan agertzen diren leku eta orduetan izango dira.
- Ikastaroa egiteko onartuei, ikastaroak irauten duen denbora (**soilik**) emango die unibertsitateak. Horretarako 2017ko azaroaren 24ko gerentearen erabakiak, 2017ko baimenei buruzko zirkularrean adierazita dagoen moduan, bere 16.1.3. atalean dioena beteko da (hobekuntza ikastaroei ematen zaien tratamendu bera emanez).

**Onartuen eta baztertuen jakinarazpenak:**

- Posta elektronikoz jakinaraziko zaie interesatuei onartuta dauden ala ez.

Jon Zarate Sesma

UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea

## Ikastaroak

**AA:** Aurrez aurrekoa

**L:** Lineakoa edo on-line

### URRIAN

Ikastaroa	Non eta noiz	Ikastaro mota	Fitxa teknikoa
2.HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA	Gasteiz Urriak 8,10,15,17,22 eta 24	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
3.HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA	Gasteiz Urriak 8,10,15,17,22 eta 24	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
4.HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA	Gasteiz Urriak 9,11,16,19,23 eta 25	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
3.HE: IDATZIZKOA AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA. (DONOSTIA)	Donostia. Urriak 8,10,15,17,22 eta 24	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
4.HE: IDATZIZKOA AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA. (BILBO).	Bilbo. Urriak 8,10,15,17,22 eta 24	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
BILEREN KUDEAKETA ETA HIZKUNTZA ESTRATEGIAK.	Gasteiz. Urriak 15 eta 22	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>

ADMINISTRAZIOAN NOLA IDATZI. (DONOSTIA).	Donostia. Urriak 9,16,23 eta 30	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
AURREZ AURREKO ETA TELEFONO BIDEZKO HARRERA, OHARRAK ETA MEZU ELEKTRONIKOAK. (BILBO).	Bilbo. urriak 2, 9, 16, 23 eta 30	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
ESALDI-EGITURA ARGIAREN BILA	Gasteiz Urriak 29 eta Azaroak 5, 12 eta 19	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
ESALDI-EGITURA ARGIAREN BILA. (BILBO).	Bilbo urriak 4, 11, 18 eta 25	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
MEZU ELEKTRONIKO EGOKIAK IDATZI.	Ikus fitxa teknikoa (on line egiteko 20 orduko ikastaroa. Urriaren 4tik 31ra bitartean).	<b>L</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
BILERA-AKTA, IRAGARKIA ETA TXOSTENA.	Ikus fitxa teknikoa (on line egiteko 20 orduko ikastaroa. Urriaren 4tik 31ra bitartean).	<b>L</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
1.HE: IDATZIZKO AZTERKETA. IDAZKI LABUR ETA INFORMALAK, KEXAK ETA	Ikus fitxa teknikoa (on line egiteko 15 orduko ikastaroa.	<b>L</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>

ERREKLAMAZIOAK LANTZEN.	Plataforma zabalik urriaren 4tik 31ra. Aurrez aurreko saio bi: urriak 5 eta 19)		
2.HE: IDATZIZKO AZTERKETA. GUTUNA ETA ARTIKULUA LANTZEN.	Ikus fitxa teknikoa (on line egiteko 15 orduko ikastaroa. Plataforma zabalik urriaren 4tik 31ra. Aurrez aurreko saio bi: urriak 5 eta 19)	<b>L</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
3.HE: IDATZIZKO AZTERKETA. GUTUN FORMALA ETA IRITZI-ARTIKULUA LANTZEN.	Ikus fitxa teknikoa (on line egiteko 15 orduko ikastaroa. Plataforma zabalik urriaren 4tik 31ra. Aurrez aurreko saio bi: urriak 5 eta 19)	<b>L</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
4.HE: IDATZIZKO AZTERKETA. IRITZI-ARTIKULUA IDAZTEKO ESTRATEGIA.	Ikus fitxa teknikoa (on line egiteko 15 orduko ikastaroa. Plataforma zabalik urriaren 4tik 31ra. Aurrez aurreko saio bi: urriak 5 eta 19)	<b>L</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>

## **AZAROAN**

2.HE: AHOZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA.	Gasteiz Azaroak 12, 14, 19 eta 21	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
3.HE: AHOZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA.	Gasteiz Azaroak 12, 14, 19 eta 21	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
4.HE: AHOZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA.	Donostia Azaroak 13, 15, 20 eta 22	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
3.HE: AHOZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA. (DONOSTIA).	Donostia Azaroak 12, 15, 20 eta 22	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
4.HE: AHOZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA. (BILBO).	Bilbo Azaroak 12, 14, 19 eta 21	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
XUXEN: ZUZENKETARAKO SAREKO TRESNA.	Gasteiz Azaroak 23	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
TESTUAK ZUZENTZEKO MODUEZ. (DONOSTIA)	Donostia Azaroak 14, 21 eta 28	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
BILEREN KUDEAKETA ETA HIZKUNTZA ESTRATEGIAK. (DONOSTIA).	Donostia Azaroak 6 eta 13	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
JENDAURREAN EFIKAZIAZ HITZ	Bilbo	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>

EGITEA. (BILBO).	Azaroak 5, 12, 19 eta 26		
ZUZENBIDEKO PROFESIONALAK TREBATZEN. Euskarazko baliabideak eta terminologia.	Gasteiz Azaroak 8, 15, 22 eta 29	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
WORDFAST, ELEBIETAN IDAZTEN LAGUNTZEKO TRESNA.	Gasteiz Azaroak 13 eta 20	<b>AA</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
WEBERAKO NOLA IDATZI	Ikus fitxa teknikoa (on line egiteko 20 orduko ikastaroa. Azaroaren 5etik 29ra bitartean).	<b>L</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
ADMINISTRAZIOAN KOMUNIKAZIOA ERRAZTU	Ikus fitxa teknikoa (on line egiteko 15 orduko ikastaroa. Azaroaren 5etik 29ra bitartean).	<b>L</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>
HIZKERA JURIDIKOA	Ikus fitxa teknikoa (on line egiteko 15 orduko ikastaroa. Azaroaren 5etik 29ra bitartean).	<b>L</b>	<a href="#">Fitxa teknikoa</a>